

EKIALDEGAR FILOSOFIA

Paulo Agirrebaltzategi

Zibilizazio mendebaldarrena da *"filosofia" kontzeptua: Grezian sortu, mamitu eta finkatu, eta mendebaldera hedatu eta hemen garatu den gogamenduari eman izan zaio izen hori. Greziar *"logos"ari lotua doa filosofia mendebaldean.

Orduan ekialdegar filosofiari ba ote den eta zer esan gura duen galdetzea bide okerra ote da hasieratik, kultur barruti jakin batean landuriko kontzeptua bestelako kultur barrutira aldatzea dela eta?

Baina kultura eta honi dagozkion kontzeptuak biziak dira eta irekiak. Mendebaldean ere *"a posteriori" landuriko kontzeptua da filosofiarena: hau da, filosofi tradizioa ez da alde zehatzetik zehaztu eta finkaturiko ideia edo eskemaren baten arabera landua; alderantziz, landuz doan gogamendu-tradizio bizi horri "filosofia" izena eman zaio gero. Tradizio bizi adierazten duten kontzeptuak ere biziak dira, ordea. Bizitza horren parte da filosofia ere; eta horren korrontean "filosofia" kontzeptua ere etengabe zehaztuz (eta aberastuz) doa. Horregatik bidezkoa izan daiteke mendebaldeko gogamendu-tradizioari emaniko izena zabaltzea, eta bestelako gogamendu-tradizioetara ere moldatzea.

Bide honetatik, autore gehienek ez dute, maila abstraktuan bederen, ekialdegar filosofiari badela onartzeko eragozpenik. Baina gauza bat da Ekialdean ere filosofia landu dela esatea, Mendebaldetik begiraturik benetako filosofiatzat onar daitekeena; eta besterik, filosofia horren ezaugarriak bereiztea; areago, ekialdegar filosofia bat bera den ala ekialdegar filosofiez mintzatu beharra dagoen argitzea.

"Ekialdegar filosofia" kontzeptuak zera objektiboren bati erantzungo badio eta benetako edukina izango bada --formula abstraktu hutsa eta etiketa eroso ez besterik izango ez bada, alegia-- bi baldintza bete behar ditu:

1. Mendebaldar filosofiari buruz filosofi tradizio berezi eta espezifikoak izan behar du. Bestela "Ekialdeko filosofia" (ez "ekialdegarra") izango litzateke, hau da, Ekialdean landua, baina Mendebaldeko tradizioak asimilatze modukoa.

2. Beraren barnetik begiraturik, tradizio bat bera edo bateragarria izan behar du, mendebaldar filosofiarena den heinean, eta batasun-elementu horiek izan behar dute, hain zuzen, mendebaldar filosofiari buruz bereizgarriak. Bestela "ekialdegar filosofiak" edukiko genituzke, ez "ekialdegar filosofia".

Hiru ikuspegitatik muga daiteke ekialdegar filosofia: geografiatik, historiatik eta filosofiatiatik bertatik. Horien arabera hiru *definizio --mugaketa-- desberdin edukiko ditugu ekialdegar filosofiari dagokionez; baina baita mendebaldar filosofiari dagokionez ere, batarren definizio moduak bestearren maila bereko definizioa eskatzen bait du. Izan ere, ekialdegar eta mendebaldar filosofien kontzeptuak korrelatiboak dira.

1. **Geografiatik** begiraturik, ekialdegar filosofiatzat hartzen dira Asiako lurraldean sortu eta landu diren filosofi *sistemak. Bide honetatik doa St. Elmo Nauman bere **Dictionary of Asian Philosophies** liburuan. Asia eta Ekialdea berdin egiten dira, eta horra biltzen dira: pertsiar, indiar, txinatar, palestinar, babiloniar, tibetar, japoniar, arabiar eta syriar filosofiak. Filosofiazko eta ekialdegar filosofiazko kontzeptu oso zabala ematen du ikuspegi honek; hobe esanda, ekialdeko filosofiez mintzatzen da autoreak, ekialdegar filosofiaz bezala.

Ekialdegar filosofiaren zakura guzti horiek bildu nahi badira, goian aipaturiko baldintzak ez dira betetzen, ez bat eta ez bestea. Alde batetik, horietako palestinar, arabiar, syriar eta babiloniar filosofiak --guzti horietaz horrela mintzatzerik baldin badago-- historian zehar gehienbat mendebaldar tradizio filosofikoak bereganatu eta asimilatu ditu, eta mendebaldar tradizioan sartu direla esan daiteke. Pertsiar *kosmologia dualista ere bai, neurri handi batez. Beste aldetik, guzti horiei barnetik begiratzen bazaie, inola ere ez dago filosofi tradizio bakarrera ekartzetik.

Horregatik gehienez ere ekialdegar (asiar) filosofiez mintza gaitzke maila horretan, ez filosofiaz.

Ekialdetar filosofia

2. **Historiatik** begiraturaz, mendebaldar filosofiari buruz beren historia autonomoa izan duten filosofi tradizioek osotuko lukete ekialdetar filosofia: hau da, indiar, txinatar, japoniar (eta tibetar) tradizioek; eta neurri batez pertsiar eta arabiar tradizioek ere bai.

Mendebaldar tradizioari buruz badute horiek beren berezitasuna, autonomia istorikoarekin batera. Baina ez dago inola ere filosofi tradizio berberara ekartzetik, mendebaldar filosofi tradizioaren aurrez aurre bestelako tradizio bakar berezia eratzeko moduan. Maila honetan, beraz, gutxienek hiru ekialdetar filosofi mundu bereizi beharra dago: arabiarra, pertsiarra eta indiar-txinatarra (tibetar eta japoniarrarekin batera). Honela ulertzen du **The Encyclopedia of Philosophy** hiztegiak (Zuz. Paul Edwards).

3. **Filosofiatik** bertatik begiraturaz, estutu egiten dugu ikuspegia, eta txinatar eta indiar filosofiak bakarrik hartzen ditugu kontutan (tibetar eta japoniar filosofiak beste horien eratorpen eta luzapentzat hartuz). Ferrater Mora-k honela hartzen ditu; eta hauei begira ere adierazten du egokiago dela ekialdetar filosofiez mintzatzea, eta ez ekialdetar filosofiaz.

Jatorriz mendebaldar filosofia, bere sustraiak Grezian dituen arbola handi bat da, historian zehar adar ugariak emanez, handituz eta zabalduz joan dena. Era berean, maila honetan, bi enborreko bezala agertzen zaigu ekialdetar filosofia: indiar enborra eta txinatarra, bakoitza bere adar edo eskola filosofiko ugariekin.

K.a. VI. mendean sortzen dira hiru tradizio filosofiko handiak: greziarra, indiarra eta txinatarra. Txinako bi eskola handien (*konfuzianismoaren eta *daoismoaren) sortzaileak (Konfuzio eta Laozi) mende horretakoak dira; era berean, Indiako sistema filosofiko nagusien sortzaileak ere mende honetakoak dira: Gautama (Nyaya), Kapila (Samkhya), Buddha (*budismoa), Mahariva (*jainismoa).

Txinatar filosofiaren eta indiarren jatorria mende berekoa izanik ere, bi mundu kultural, sozial eta politiko desberdinetan gertatzen dira bata eta bestea. VI. mendeko Indiako iparralde (erlijiozko mugimendu eta sistema filosofiko handien sorlekua) alde batetik tribu txikitari eta bestetik erreinu txikitari eraturik dago. Poliki-poliki erreinuok hegoalderantz zabalduz joango dira, organizazio politiko tribala irentsiz. Eta erreinuon hedatzeaz batera erlijiozko eta gogamenduzko korronteak ere zabalduz doaz. Erakuntza sozialaren aldetik, berriaz, *kaste gizartea finkatzen ari da. Indiar filosofi sistema handiak, alde batetik brahmanismoaren krisi handi baten eta bestetik budismoaren eta jainismoaren sortze- eta indartze-garai berean sortzen eta finkatzen dira. Erlijiozko lehertzapen-giro honetan eratzen da, beraz, indiar filosofi tradizioa.

Txinako VI. mendea aski desberdina da. Erreinu askotan banaturik dago eta haren erakuntza politiko-soziala erabat feudala da. Ondorengo mendeak erreinu horien arteko etengabeko borroken garaia izango dira. Situazio politiko-sozial hau konponbideratu nahian --beraz, erreforma-kutsuarekin-- sortuko da txinatar filosofia. Erakuntza sozialaren oinarrian familia dago eta erlijio-modua bera ere, funtsean, arbasoen kulturen nabarmentzen da. Egoera eta dinamika guzti honek bideratuko du, baita ere, txinatar filosofi tradizioa.

Jatorriz, beraz, ekialdetar bi filosofi tradizio horiek ez dute harremanik, eta ia erabat autonomoak direla esan daiteke. Hala ere, historian zehar, hurbiltasun geografikoagatik eta merkataritzako harremanen bitartez, bi herrietako tradizio erlijiozko, kulturazko eta filosofiazkoek elkar gurutzatuko dute. Nepal eta Tibet dira bereziki bi tradizioen gurutzalekuak. Baina dudismoak, Txina zabalera hedatzean eta nolabait bertakotzean, eragin handia izango du hango tradizioan. Honela, historian zehar, bi filosofi tradizioen artean ukazineko eragina eta hurbilketa gertatuko da; hala ere, bi mundu autonomo bezala jarraituko dute.

Aro Modernoan, berriro ere, kointzidentzia tenborala gertatuko da: txinatar eta indiar filosofiek XIX. mendean bigarren partean egingo dute topo mendebaldar filosofiarekin, bai Txinak eta bai Indiak honi ateak irekitzen dizkiotenean.

Baina ba ote dago bi filosofi tradizioak --txinatarra eta indiarra--, barrutik aztertuz, elkarganatzetik eta **ekialdetar filosofia** bezala mendebaldar filosofiari kontra-jartzetik edo honekin alderatzerik?

Hiru aldetatik azter daitezke indiar eta txinatar filosofien arteko kidetasunak eta mendebaldar filosofiari buruzko berezitasunak: filosofiaren kontzeptua bera, filosofia egiteko bidea eta filosofi tradizioek aztertzen dituzten gaiak ikusiz, alegia.

1. Filosofia giza *jakinduria da, eta ez *arrazoimenezko jakinduria hutsa. Benetako filosofoa "jakintsua" da. Ekialdetar filosofiarentzat jakintza teknikoaren, zientziazkoaren, filosofikoaren eta erlijiozkoaren arteko banakuntza artifiziaia da.

Filosofiak giza *bizitzaren eta *errealitatearen osoa hartu nahi du, filosofoa bera errealitate horren barruan delarik. Filosofiako jakinduria osotasun horrekin bat izatea da. Honek bi ondorio dakarta filosofia bera ulertzeko moduan: a) Filosofia salbamen-jakinduria da; gauzen izaera soila baino gehiago gauzen salbamaena bilatzen du ekialdetar filosofiak, eta bereziki gizakiaren beraren salbamaena. Salbamaena, berriz, hiru eratara uler daiteke: *kosmosaren barruan eta horren dinamikari sartzea; errealitate ikuskorretatik iheseginez, Izan Absolutuaren batasunean murgiltzea; nor bere giza komunitatearekin bat egitea. b) Filosofia inarduera praktikoa da; ezagutzaren eta ekintzaren arteko lotura ala bereizkuntzarekiko eztabaida ezezaguna da. Salbamen inhardueratik sortzen eta mantentzen da filosofiako *gogartea, ezagutza hutsa gainditzen duena; eta jakintza berez pragmatikoa da.

Txinatar filosofian, /filosofiako gogamendua eta bizierazko jakinduria praktikoa *erlijiozko sustraian oinarritzen eta erlijiozkoan hedatzen dira. Bizitzako jokabide praktikoan --jakindurian-- nolabait inplizitu dago erlijiozkoa. Indiar filosofian, berriz, filosofiako gogarte teorikoak berak du edukin erlijiozkoa, esplizituki. Horrela, bada, txinatar eta indiar filosofietan zera teorikoa eta praktikoa, biak, batera doaz.

2. Indiar nahiz txinatar filosofi tradizioak oso emankorrak dira, eta hainbat eskola eta *sistematan banatzen dira. Eskola edo sistema horiek, berriz, gogamendu-ibaia bezala dira, dinamikoak eta higikorak. Ekialdetar filosofian garrantzizkoa ez da filosofo bakoitzaren originaltasuna, eta bai sistema edo eskola barruko gogamendu-elkartasuna.

Filosofigintza tradizio batean murgiltzea da gehienbat. Horregatik oso garrantzizkoa da sistema edo eskola tradizional bakoitzarentzat bere jatorriarekiko lotura argi edukitzea: jatorri hori liburu sakratuetan aurkitzen da indiar filosofian, jakintsu zaharrengan, berriz, txinatar filosofian. Iturri horien interpretazio jatorra filosofiako eztabaiden oinarrian dago sarritan.

3. Ekialdetar filosofiaren salbamen-helburuaren arabera, horren aztergai eta eztabaidagai guztien oinarrian eta funtsean *Ongi Gorena dago, beronen adiera metafisiko eta etikoan. Ongi Gorena bilatzen duen filosofiak, berriz, horretara iristeko bideak ditu bere zuzeneko gaiak. Horregatik esan daiteke "zorionbidea" edo "salbabidea" dela nolabait ekialdetar filosofiaren muina eta beste gai guztien lotura.

Salbabidearen filosofia ezagutzaren teoriarik konkretatzen da Indian. Arazo logikoak eta epistemologikoak leku handia dute indiar filosofian. Salbamen-ezagutza, berriz, gogartearekin, *esperientzia mistikoarekin eta errituzko inharduerarekin loturik dago, filosofi eskola desberdinen arabera.

*Ezagutzaren teoriak Indian duen garrantzia du Txinan gizartearekiko teoriak. Izan ere, gizakiaren zorionbidea ongi eratuakoz gizaratean nor bere lekua betetzear datza.

Arazo kosmologikoak leku berezia eta zabal hartzen dute ekialdetar filosofian. Baina *kosmologia eta *antropologia nahiko lotuta doaz, makrokosmosaren eta mikrokosmosaren arteko kideatasunaren arabera. Antropologia, berriz, munduaren baieztapenaren eta ezeztapenaren artean dabil, eskola bakoitzaren arabera: ihesa ala elkartasuna, biak dira gizakiak munduarekiko duen kideatasun berberaren aurrean eta barruan harturiko alde bitako jokabideak.

Hemen azalduko ezaugarriak mendebaldar filosofiaren aurrez aurre nabarmendu nahi badiugu, hainbat kontraposizio aurki genezake.

Filosofiako kontzeptuari dagokionez, hiru puntutara bilduko genituzke: a) Ekialdetar filosofia erlijiozko tradizioaren barruan eta horren gainean eraikitako *mundu-ikuskeran mamitzen den bezala, mendebaldar filosofia, mitoa ukatuz eta arazoimen objektibizatzailearen izenean abiatu eta zabaldu da; b) ekialdetar filosofiak izakien eta gizakiaren, Izan Absolutuaren eta munduaren arteko batasunera eta fusiora jotzen duen bitartean, mendebaldarrak errealitatean banakotzera edo indibidualtzera jotzen du; c) ekialdetar filosofiak *gizakiaren barne-aldakuntza eta azken *helburua bilatzen duen bitartean, mendebaldarra gizakiagandik kanpoko mundu objektiboaren (gizaratearen edota izadiaren) eraldakuntzaren bila dabil.

Filosofigintzari dagokionez, ekialdetarra tradizio partikular eta existentzialetik abiatzen da eta hor kokatzen; mendebaldarra, berriz, arazoimen teoriko eta "unibertselean" oinarritzen da.

Ekialdetar filosofia

Gaiei dagokienez, ekialdetar filosofiak gauzen salbagarritasuna nabarmentzen duen bitartean, mendebaldarrak gauzen izaera aztertzen du.

Guzti hau honela aurkezturik, badirudi indiar eta txinatar filosofiek mundu homogeno eta berezia (mendebaldar filosofia mundutik ongi bereiztekoa) osotzen dutela.

Baina bereizkuntza hauek ezin daitezke erabatekotzat har. Joera desberdinak nabarmentzen dira hemen, eta ez barruti itxiak mugatzen eta hesitzen.

Laburbilduz, zalantzarik gabe indiar-txinatar filosofiek, berauen jatorria, historia, filosofiarekiko kontzeptua, filosofigintza eta aztergai nagusiak ikusita, mundu espezifikoko, berezi eta autonomoa osatzen dute, mendebaldar filosofiari buruz. Alde honetatik "ekialdetar filosofiak" bere esangura eta mamia c'uela baieztatu daiteke.

Baina "ekialdetar filosofia" ezin daiteke defini "mendebaldar filosofia" ez dena bezala. Horregatik zalantzazago gelditzen da baieztapen hura, txinatar eta indiar filosofiak (tibetarrarekin eta japoniarrarekin batera) tradizio bat berera ekarri nahi ditugunean.

Horien artean loturarik, harremanik eta kideatasunik aski aurkitzen bada ere, desberdintasunak eta urruntasunak ere ez dira txikiak, oinarrietan, joeretan eta gaietan, beraien jatorrizko eta historiazko autonomiaz gain. Nabarmenago geldituko dira desberdintasunok, hain zuzen, txinatar eta indiar filosofi tradizioak bakoitza bere aldetik aztertzen direnean.

Hala ere, bi herrien arteko historian zeharko harremanengatik, nolabait hurbilduak gertatu dira bien filosofi tradizioak eta leunduak horien jatorrizko desberdintasunak.

Ondorioz esan daiteke, mendebaldar filosofiaren arbola bakarra dela, baina hainbat adar (eskola eta korrante) desberdin --eta sarritan kontrako-- sortu eta eman duela. Era berean, Ekialde urrutikoan (Txinan eta Indian) sortzetik bertatik bi arbola handi ditugu, bakoitza bere adar ugariarekin eta sustrai zabalekin; baina, hain zuzen ere, historian zehar, arbola bakoitza bere lurrean hazi baldin bada ere, sustraietarik elkarri edan eta adarretatik elkarri eman diote, neurri batean behintzat sinbiosi- eta osmosi prozesu nabarmena agertuz.

Beraz, arrazoizkoa da "ekialdetar filosofiaz" mintzatzea; bai eta eroso, eta inoiz beharrezkoa ere bai; baina horren edukin oso jasotzeko, banan-banan aztertu behar dira indiar, txinatar, japoniar (eta tibetar) filosofiak.

Eta hauen arteko berezitasunak ikusi ondoren, ongi nabarmenduko litzateke ez dagoela horrelako tradizio homogenorik; eta orduan mendebaldar tradizioari buruzko konparazioa (eta kontrajartzea) ere zailagoa gertatzen da. Eta, dena dela, "ekialdetar filosofia" esatean, **tradizio** zabal, anizkor eta ireki bezala ikusi behar da, eta ez sistema itxi edo eskola mugatu bezala.

Ez mendebaldar eta ez ekialdetar tradizioak monolitikoak ez direla jakinik, aztertutako hiru aldeetatik (filosofi kontzeptuaren, filosofigintzaren eta filosofi aztergaien aldetik) zenbait kideatasun ere nabari dira: Motibo berdinak, batzutan; osagarriak, askotan. Baina batez ere, tradizio batean motibo oso bereziak bezala agertzen direnak ere, ia beti beste tradizioaren adar edo korronteren batean nabarmendu ohi dira, bi tradizioen arteko lotura egiteko moduan.

Orduan, ekialdetar eta mendebaldar filosofien desberdintasunen eta bereizgarrien sustrai eta arrazoiak bi tradizioen jatorri eta historia desberdin eta autonomoetan aurkitu behar da. Ingurune ekonomiko, sozial, politiko eta kulturazko desberdinek eta autonomoek, Filosofi tradizio desberdinak eta nolabait autonomoak eman dituzte, baina ez kontrakoak.

Ekialdetar filosofia definitu nahian, kontzeptu horren oinarria eta arrazoizkotasuna adierazi dira; baina baita erlatibotasuna ere. Ferrater Mora-ren **Diccionario de Filosofía**-ko "Filosofía oriental" artikuluan analisi interesgarria egiten da, mendebaldar eta ekialdetar filosofien arteko berezitasunei eta berdintasunei buruzko *eritziak eta *interpretazioak biltzen eta eskematizatu dituen. Lautan banatzen dira eritziok: a) Ez dago bien arteko harremanik, nabarmentzekorik behintzat; b) Ez dago bien arteko desberdintasunik, funtsezkorik bederen; c) Badira bien arteko desberdintasunak, baina **historian zehar** sorturikoak bakarrik, biek (nukleo berdina bait dute; d) Desberdintasunak badaude, bai, baina ***joera bat ala bestea** azpimarratzen delako bakarrik.

Nukleo berdina, joera desberdinak, historiaren eragina: hauexek direla uste dut, ekialdetar eta mendebaldar filosofien arteko harreman tradizionala interpretatzeko giltza eta etorkizuneko irekitzeko atea.

Harreman historikoak (merkataritzaren, politikaren eta kulturaren mailakoak) irekitzean eta indartzean, bi filosofi tradizioen arteko elkarganatzea ere hasi zen XIX. mendeko bigarren partean. Lehenago harreman erlijiozkoak ere landuak ziren misiolarien bidez.

Ekialdetar eta mendebaldar zibilizazioen arteko hurbilketa maila askotakoa izan daiteke. Eta zalantzarik ez dago bien arteko harremanak estutzen eta sakontzen ari direla lehenengo mendetik hona: zientziakoak eta teknologiazkoak ezezik, politikoak eta ekonomikoak ere bai.

Erlijio mailakoak, berriz, historian zehar aldebakarrak izan badira ere, kulturazko harremanak indartu diren neurrian, aldebitakoak bihurtu dira: hau da, ez-Mendebaldetik Ekialderakoak bakarrik, eta bai alderantzizkoak ere. Indiako eta Japoniako erlijiozko ideiek eta disziplinek gero eta harrera handiago dutela dirudi mendebaldeko gizarteotan. Erlijiozko ekumenismoa bidetan dago; eta "ekumene" horrek lurbira osoa hartzen du gaur egun. Zalantzarik ez dago *kultura bakoitzarentzat aberasgarri direla eta herrien arteko elkartasunerako eta bakerako oinarriak jartzen direla "ekumenismo" horren bidez.

Era berean, ekialdetar eta mendebaldar filosofi tradizioak elkar ernaltzeko eta aberas-teko garaian daude. Hurbilketa eta elkarganatze hori lortzeko, ordea, *baldintza batzu ezarri eta bide batzu ireki beharra dagoela dirudi.

Lehen baldintza zera da: ekialdetar filosofia(k) benetako filosofiatzat hartzea. *Teologiatzat (erlijio bakoitzari dagozkion teologiatzat) edota kultur forma orokortzat hartzen baldin bada Ekialdeko gogamendu osoa, nekez sor daiteke bi tradizioen arteko elkarriketa. Berriro ere europar edo mendebaldar "etnozentrismoa" gainditzea eskatzen du honek; eta mendebaldar arrazoimenaren filosofia unibertsalgarria izan daitekeen bezala, ekialdetarra ere izan daitekeela, eta funtsean ba dela aitortzea.

Baina ez da hori aski. Beharrezkoa da bi tradizioek elkar ezagutzea. St. Elmon Nauman zera esatera iristen da: "Ez du filosofia ezagutzen, ekialdetarra ez beste filosofia osoa ezagutzen duenak". Eta mendebaldar filosofiari dagokionez, esaten du ez dagoela osoa denik pentsatzerik. Alde honetatik oraindik bide luzea egiteko dago, bai ekialdean eta bai mendebaldean, benetan bi munduak hurbildu eta elkarganatu nahi baldin badira.

Hala ere, ez dago arazo hau maila abstraktuan uzterik, hurbilketa abstrakturik ez dagoelako. Ekialdetar eta mendebaldar filosofi tradizioen elkarrekiko ernalketa landuko baldin bada, jakin beharra dago bakoitzak zer ekarriko dion oinarrian besteari, edota nondik hasiko den hurbilbide hori.

Mendebaldeko tradizioa mitoa ukatuz eta arrazoimena baieztatuz abiatu zen, eta bide beretik Aro Modernoko filosofia teologiaren ukazioaren gainean eraiki da neurri handi batez. Baina razionalismoak eta teknologismoak gizakiaren gizatasuna bera murrizteko eta itotzeko arriskutan dagoen unean, mitoaren birbalioztapenari eta erlijioaren filosofiari heldu dio mendebaldar tradizioak. Filosofiaren aurrean, erlijioa (mitoa) oinarritzotzat, sektorialtatzat nahiz kontraktotzat hartu izan da, mendebal tradizioan. Krisi handi baten ondoren, badirudi bere lekua aurkituko duela: (dimentsio unibertsal bezala, alegia. Eta bide honetatik abiatzeko, ekialdetar filosofiak ekarpen berezia eskaini liezaioke mendebaldarrari.

Bestalde, mendebaldar tradizioak zientziako ezagutza bultzatu du, eta seguru asko bere meritua du hori. Aldi berean zientzien filosofia (eta horren inguruan sortu diren korrante filosofiko modernoak) erakutsi ditzake ekialdetar tradizioaren aurrean. Zientzien garapenak filosofian ukan behar duen eragina Mendebaldeak Ekialdeari eskaini diezaiokeen alderdi nagusietakoa da.

Bi tradizioen arteko elkarriketarako gaiak ugariak dira eta elkarganatzeko bideak zabalak. Horiek irekiz joateko, aurren-aurrenik elkar balioztatu beharra daukate.

Ik. Txinatar filosofia; Indiar filosofia.